

## ATZERRIKO HIZKUNTZA LH3.

### I. AHOZKO ADIERAZPEN ETA ELKARRERAGIN PROBAK ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak ondorengo bost multzoetan antolatu dira:

- Komunikazio egoerara egokitzea
- Testuaren koherentzia eta kohesioa
- Zuzentasuna
- Intonazioa, jariotasuna eta adierazkortasuna
- Elkarreragina

#### ***Egokitzapena***

Egokitzapen deitzen diogu testua testuinguru diskurtsibora egokitzeko darabilgun gaitasunari. Testuak berez islatu behar ditu hau sortu den komunikazio egoera zehatzaren parametroak (solaskideak, komunikazio asmoak, ekoizpen eta harrera kanala, etab.), horiek ezartzen baitituzte testuaren ezaugarri linguistikoak (aukeratutako testuaren generoa, erregistroa...).

Ondorengoak dira egokitzapenaren inguruko adierazleak:

- **Helburua**, lanaren helburua errespetatzen den: deskribatzea, kontatzea, azaltzea...
- **Gaiarekiko lotura, gaiaren garapena**, proposatutako gaiari egokitzen den eta informazio mota, kopurua eta kalitatea garrantzitsua den komunikazio egoerarako.

#### ***Koherentzia eta kohesioa***

**Koherentzia** deitzen diogu testua zentzuzko unitate gisa antolatzeko gaitasunari. Informazioaren aukeraketan eta egitura jakin baten antolaketan ikusten da. **Kohesioak** testuko informazioaren arteko loturak ahalbidetzen dituzten hizkuntza mekanismoak biltzen ditu. Mekanismo horiek, batez ere, bi motatakoak dira: gramatikalak eta lexikoak.

Ondorengo hauek dira koherentzia eta kohesioari lotutako adierazleak:

- **Testuaren egitura**, eskatutako testuaren egitura errespetatzen den: narrazioa, deskribapena...
- **Informazioaren garapena eta koherentzia**, testua garatu ahal izateko informazio garrantzitsua eta, besteak beste, kontraesanik eta beharrezkoak ez diren errepikapenik gabe aukeratzen den.
- **Kohesio mekanismoak**, testua sortzen den atal ezberdinak lokailu egokiekin lotuta eta erreferentzia galdu gabe, gaiaren garapena ziurtatzeko.

## **Zuzentasuna**

Zuzentasuna propietatearen bitartez gramatika arauetara egokitzen da testua. Arau morfosintaktikoen zuzeneko erabileran eta lexiko egokiaren erabileran zehazten da. Ahozko testuetan alderdi fonetikoak ere barne hartzen dira.

Ondorengoak dira zuzentasunaren inguruko adierazleak:

- **Lexikoa**, lexiko zuzen, egoki eta askotarikoa erabiltzen den.
- **Morfosintaxia**, egitura morfosintaktiko zuzen eta askotarikoak erabiltzen diren.
- **Ahoskera**, hizkuntzaren ezaugarri fonetikoak ondo ahoskatzen diren.

## **Intonazioa, jariotasuna eta adierazkortasuna**

Ahozko hizkuntzaren elementu bereziak dira, zeinetan hizkuntza elementuak eta hizkuntzakoak ez diren baina testuei zentzua ematen dieten seinaleak bateratzen baitira.

Ondorengoak dira adierazleak:

- **Intonazioa**, esanahiari ñabardurak emateko tonu barietateak erabiltzen diren (galderak, harridurak...)
- **Jariotasuna**, etenik gabe garatzen den ahozko diskurtsoa osatzen den.
- **Adierazkortasuna**, keinuak eta gorputz lengoia egoki kontrolatzen diren.

## **Elkarreragina**

Ahozko komunikazio honetan igorlearen eta hartzailearen paperak txandakatu egiten dira, elkarrekin diskurtsoa osatzeko.

Ondorengoak dira elkarreraginaren inguruko adierazleak:

- **Parte-hartzea**, eraginkortasunez parte hartzen duen eta elkarreraginean laguntzen duen.
- **Txandakatzea**, txandak errespetatzen diren hitzaren erabilera monopolizatu gabe edo besteen esku-hartzea oztopatu barik.
- **Diskurtsoaren kudeaketa**, esku-hartzeak solaskidearenetatik abiatuta egiten diren.

## 2. AHOZKO ADIERAZPENA ETA ELKARRERAGINA EBALUATZEKO GIDA

Hemen aurkezten diren materialek helburu hau dute: Lehen Hezkuntzako 3. mailako irakasleek ingelesezko ahozko adierazpen eta elkarreraginean haien ikasleen konpetentzia ebaluatzeako tresnak eskaintzea. Ebaluazio hori hiru hizkuntzetarako irizpide bateratu batzuetan oinarritzen da.

### Materialak

- Ahozko adierazpen proba aplikatzeko gida
- Ebaluazio irizpideak: errubrika
- Emaitzen erregistro orria

### Ahozko adierazpen eta elkarreragina ebaluatzeako antolaketa atzerriko hizkuntzan

ATALA	HELBURUA	PROZEDURA	TRESNAK	DENBORA
<b>Bakarrizketa</b>	Bakarrizketa testuak ekoizteko ikasleen konpetentzia ebaluatzea, ikasgelako ohiko ataza zehatz batetik abiatuta.	Gelako behaketa.	-Atzerriko hizkuntzan ahozko adierazpen eta elkarreragin proba aplikatzeko gida	Ohiko ikaste-jardunaren barruan tarte zehatzak hilabete edo hilabete eta erdian zehar.
<b>Elkarreragina</b>	Ebaluatu ikasle/irakasle edota ikasle/ikasleen arteko ahozko elkarreragina, ikasgelako jardunarekin zerikusia duten hainbat gairen inguruan.		-Ebaluazio adierazleak eta lorpen mailak zehazten dituen errubrika	
			-Emaitzen erregistro orria.	

### AHOZKO PROBAREN PROZEDURA

Ahozko probaren prozeduraren inguruan beharrezkoa da ondoko irizpideak kontuan izatea.

#### Irizpide orokorrak

- Ebaluazioa ikasgelan bertan egingo da ingeleseko saio arruntetan.
- Ahozko adierazpena sustatzen duten jarduerak erabiliko dira (aurkezpenak, errutinak...).
- Irakasleak jarduera horietan ikasleen parte-hartzea sustatuko du.
- Garrantzi handikoa da ikasleek alde aurretik ezagutu dezaten ebaluatuko den jardunaren nondik-norakoa; ataza ez dadila izan lehenengo aldiz proposatua.
- Irakasleak behatu eta oharrak jasoko ditu ikasle jakin baten alderdi baten edo batzuen inguruan, edo ikasle batzuen alderdi jakin bati buruz. Datuak ekintza egiten den bitartean edo berehala burutu ondoren jasoko dira.
- Ebaluatutako jarduera batzuk, graba litezke nahi izanez gero.

Ondoren, ahozko probaren garapena zehazten da.

## Behaketa hasi baino lehen

-Irakasleak zehatz-mehatz ezagutu behar du ebaluazioaren errubrika, ebaluatuko diren alderdiak, eta ikasleen lorpen mailen sailkapena.

-Irakasleak ikasgelan normalean egiten dituen ahozko jarduerak aztertuko ditu, eta horien artean ebaluaziorako egokienak aukeratuko ditu. Jarduera horiek mota honetakoak izan daitezke: errutinak, ahozko aurkezpenak, elkarrizketak, kantak eta errimak, argazki deskribapenak, *rol*-jokoak, antzezpenak...

-Irakasleak behaketarako beharko dituen materialak aldeztu aurretik izan beharko ditu prest.

### 1. Ebaluazio adierazleak eta lorpen mailak zehazten dituen **errubrika**<sup>1</sup>. Bi aukera daude:

-Errubrika bana fotokopiatu ikasleko, eta bertan zuzenean emaitzak jaso, horiek geroago erregistro orrira eramateko.

-Errubrikaren kopia bakarra erabili behaketarako gida moduan, eta emaitzak zuzenean jaso erregistro orrian.

### 2. **Emaitzen erregistro orria**<sup>2</sup>: kopia bana taldeko.

-Zein alderdi eta zein ikasle behatuko dituen erabaki beharko du egun bakoitzean.

## Behaketaren bitartean

-Irakasleak beti izango ditu eskura behaketa eta erregistrorako materialak.

-Irakasleak ahalegin guztiak egingo ditu ikasleak probetan eroso sentitu daitezen, eta haien parte-hartzea sustatuko du hainbat estrategia erabiliz: galderak eginez, horiei erantzuteko behar beste denbora emanez, hitz edo esaldien hasierak emanez, ikasleen ekoizpenak laudatuz...

-Jarduera batzuen audio edo bideo grabazioak egitea erabakiz gero, irakaslea saiatuko da ikasleek halako egoera ere ahalik eta modu naturalenean bizi dezaten, eta grabaketa ez dadin beldur edo atzera eragile bihurtu.

## Behaketa amaituta

-Irakasleak bere oharrak osatu edo berrikusiko ditu ebaluatu dituen ikasleen jardunaren inguruan.

-Emaitzetako erregistro orriak eskaintzen dizkion lorpen mailetakozko zenbakiak edota koloreak erabiliko ditu.

---

<sup>1</sup> Ikusi 5. orrialdea

<sup>2</sup> Ikusi 6. orrialdea

		HASIERAKO MAILA		ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA	
		1	2	3	4	5
KOMUNIKAZIO EGOERARA EGOKITzea	<b>Ulermena</b> <b>Diskurtsoaren helburua</b> <b>Gaiaren garapena</b> <b>Kortesiazkoko formulen erabilera</b>	<input type="checkbox"/> Ez du ulertzen. <input type="checkbox"/> Ez du proposatutako ataza betetzen. <input type="checkbox"/> Ez du galdera errazei erantzuten. <input type="checkbox"/> Ez du kortesiazkoko formularik erabiltzen, egoeran beharrezkoak izan arren.	<input type="checkbox"/> Nahiz eta keinuekin, errepikapenekin eta birformulazioekin lagundu, nekez ulertzen du. <input type="checkbox"/> Proposatutako ataza apenas betetzen du edo laguntza handiz eta zailtasunekin egiten du. <input type="checkbox"/> la ez du galdera errazei erantzuten. <input type="checkbox"/> Apenas erabiltzen ditu kortesiazkoko formulak egoeran beharrezkoak izan arren.	<input type="checkbox"/> Nahiz eta errepikapenen bat, birformulazioak edota keinuak behar izan, ulertu egiten du. <input type="checkbox"/> Proposatutako ataza laguntzaz betetzen du. <input type="checkbox"/> Galdera errazei erantzuten du. <input type="checkbox"/> Orokorrean, oinarritzko kortesiazkoko formulak erabiltzen ditu, egoerak eskatzen badu.	<input type="checkbox"/> Ulertzen du. <input type="checkbox"/> Proposatutako ataza ia laguntzarik gabe betetzen du. <input type="checkbox"/> Galdera errazei berehala erantzuten du. <input type="checkbox"/> Oinarritzko kortesiazkoko formulak egoki erabiltzen ditu, egoerak eskatzen badu.	<input type="checkbox"/> Erraztasunez ulertzen du. <input type="checkbox"/> Proposatutako ataza era autonomoan eta erraztasunez betetzen du. <input type="checkbox"/> Galdera errazei berehala eta erraztasunez erantzuten du. <input type="checkbox"/> Oinarritzko kortesiazkoko formulak egoki erabiltzen ditu, egoerak eskatzen badu.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA	<b>Koherentzia</b> <b>Testu-antolatzaileen erabilera</b>	<input type="checkbox"/> Modu inkohorentean erantzuten du. <input type="checkbox"/> Ez du testu-antolatzailearik erabiltzen.	<input type="checkbox"/> Galdera gehienei modu inkohorentean erantzuten du. <input type="checkbox"/> Ez du testu-antolatzailearik erabiltzen.	<input type="checkbox"/> Galdera gehienei modu koherentean erantzuten du. <input type="checkbox"/> Testu-antolatzaile errazaren bat hitz batzuk lotzeko erabiltzen du.	<input type="checkbox"/> Modu koherentean erantzuten du. <input type="checkbox"/> Testu-antolatzaile errazak hitzak lotzeko edota hitz multzoak lotzeko erabiltzen ditu.	<input type="checkbox"/> Modu koherentean erantzuten du. <input type="checkbox"/> Testu-antolatzaileak hitzak edota perpausak lotzeko erabiltzen ditu.
ZUZENTASUNA	<b>Hiztegia</b> <b>Morfosintaxia</b> <b>Ahoskera</b> <b>Intonazioa</b> <b>Erantzuteko prozesatzea eta jariora</b>	<input type="checkbox"/> Ez du hiztegiarik edo oso mugatua du. <input type="checkbox"/> Egitura morfosintaktikoen gabezia. <input type="checkbox"/> Hitz isolatuak eta ulergaitzak ekoizten ditu. <input type="checkbox"/> Ahoskera desegokia eta ulergaitza da. <input type="checkbox"/> Diskurtso eza atzerriko hizkuntzan. Laguntza handia behar du jarraitzeko.	<input type="checkbox"/> Hiztegia mugatua du. <input type="checkbox"/> Egitura morfosintaktikoen gabezia. <input type="checkbox"/> Hitz isolatuak ekoizten ditu edo keinuka komunikatzen da. <input type="checkbox"/> Ahoskera desegokia da. <input type="checkbox"/> Isilune luzeak edo beste hizkuntza batean komunikatzen da. Laguntza nahikoa behar du jarraitzeko.	<input type="checkbox"/> Hiztegi nahikoa erabiltzen du, oker batzuk egin arren. <input type="checkbox"/> Egitura telegrafikoak erabiltzen ditu. Hitz solteak edo hitz multzoak ekoizten ditu komunikazioa oztopatzen ez duten akatsak eginez. <input type="checkbox"/> Ahoskeran akatsak izan arren, ulergarria da. <input type="checkbox"/> Intonazio monotonoa eta etenekin baina komunikazio oztopatzen ez duena. <input type="checkbox"/> Bere diskurtsoan isilune eta zalantza nahiko adierazten ditu.	<input type="checkbox"/> Hiztegi nahikoa erabiltzen du. <input type="checkbox"/> Egitura sinpleak baina bukatugabeak edo komunikazioa oztopatzen ez duten akatsak erabiltzen ditu. <input type="checkbox"/> Ahoskera onargarria du. <input type="checkbox"/> Intonazio onargarria du. <input type="checkbox"/> Bere diskurtsoan isilune eta zalantza batzuk adierazten ditu.	<input type="checkbox"/> Askotariko hiztegia. <input type="checkbox"/> Orokorrean perpaus sinpleekin komunikatzen da, batzuetan egituraketan akatsak egin arren. <input type="checkbox"/> Gehienetan ahoskera argia eta zuzena du. <input type="checkbox"/> Intonazio adierazkorra. <input type="checkbox"/> Bere adinerako nahiko hitz-jarioa du.
HIZKUNTZAZ KANPOKO ALDERDIAK	<b>Adierazgarritasuna: keinuak</b> <b>Ahotsaren bolumena</b>	<input type="checkbox"/> Adierazkortasun gabeko jarrera (zuruntasun handiegia edo keinu gehiegi). <input type="checkbox"/> Ez zaio aditzen esaten duena.	<input type="checkbox"/> Keinu falta edo keinu gehiegi. <input type="checkbox"/> Esaten duena aditzea kostatzen da.	<input type="checkbox"/> Orokorrean, esaten duena laguntzeko keinuak egokiak dira, falta edota gehiegikeria egon daitekeen arren. <input type="checkbox"/> Batzuetan ez zaio aditzen esaten duena.	<input type="checkbox"/> Esaten duena laguntzeko keinuak egokiak dira. <input type="checkbox"/> Egoerarako ahots bolumena egokia da.	<input type="checkbox"/> Bere diskurtsoa keinu natural eta egokiekin laguntzen du. <input type="checkbox"/> Egoerarako ahots bolumena egokia da.
ELKARRERAGINA	<b>Parte hartzea</b> <b>Diskurtsoaren kudeaketa</b> <b>Autorregulazioa</b>	<input type="checkbox"/> Apenas elkarri eragiten du. <input type="checkbox"/> Saiakera falta (berbalak eta ez berbalak) komunikazioa mantentzeko. <input type="checkbox"/> Autorregulazio eza.	<input type="checkbox"/> Zailtasunez elkarri eragiten du. <input type="checkbox"/> Elkarrizketa mantentzea kostatzen zaio. <input type="checkbox"/> Laguntza handiz autorregulatzen da.	<input type="checkbox"/> Orokorrean, elkarri eragiten du eta galderak erantzuten ditu. <input type="checkbox"/> Batzuetan, estrategiaren bat (errepikapena edo laguntza eskatu) komunikazioa mantentzeko. <input type="checkbox"/> Laguntzarekin autorregulatzen da.	<input type="checkbox"/> Elkarri eragiten du eta galderak erantzuten ditu. <input type="checkbox"/> Komunikazioa mantentzeko estrategiak (errepikapena edo laguntza eskatu, keinuak...) erabiltzen ditu. <input type="checkbox"/> Autorregulatzen da.	<input type="checkbox"/> Elkarri eragiten du modu naturalean eta galderak erantzuten ditu. <input type="checkbox"/> Komunikazioa mantentzeko estrategiak (errepikapena edo laguntza eskatu, keinuak, galderak...) erabiltzen ditu. <input type="checkbox"/> Era autonomoan autorregulatzen da.

